



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Larunbata  
2010-01-09**

VIII. URTEA 1.898. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

## Peio Olano lizartzarra atxilotu dute ETArekin lotura duelakoan

**LIZARTZA** Guardia Zibilak ostegun gauean eraman zuen etxetik, Grande Marlaska epailearen aginduz

**INKOMUNIKAZIOA** AAMk ohartarazi du Olanok «benetako tortura arriskua» bizi duela egunotan 3



Gaur manifestazioa egingo dute Lizartzan, 19:00etan, 'Pello askatu, utzi pakean Lizartza!' lelopean. A. IMAZ

## Antton Pebet I. Memorialeko finalak, gaur Bearzanan

**VILLABONA** Kadete, jubenil eta nagusien mailako partidak jokatuko dituzte 18:00etan hasita; hamabi pilotarietatik erdiak eskualdekoak dira 6-7

**Markak hautsi ditu Laskorain Ikastolaren aurtengo Merkatu Txikiak**

**TOLOSA** Indiarra eta Saharara bidaltzeko 17.500 euro bildu dituzte guztira 2

**Intxurreko talde nagusia igoera fasea jokatzeko hasiko da gaur Martutenen**

**ALEGIA** Jubenil eta kadete mailako taldeek Kopa jokatu dute 4



**EUROPAKO MOZORRO  
DENDARIK HANDIENA  
(1.000 m<sup>2</sup>)**

Elbarrena Industrialdea  
Tel.: 943 888 232 Zaldibia

---

**IHAUTERIAK 2010**

[www.JAIKENDENA.com](http://www.JAIKENDENA.com)





Inoiz baino jende gehiago hurbildu da Eguberri hauetan Laskorain ikastolak antolatutako Merkatu txikiak. E. EZEIZA

## Errekorrak hautsi ditu Laskorain Merkatu txikiak

**Gizartea** » 17.500 euro inguru bildu dituzte India eta Saharara bidaltzeko; oraindik hala ere, janari bilketarekin jarraituko dute.

### ERREDAKZIOA

Bi astetan zabalik egon ostean, Errege egunaren bezperan itxi zituena atean Laskorain antolatutako Merkatu txikiak. Ikastolak antolatutako, eta Ibarrako misio taldeak, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eta Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuak lagundutako Gabonetako Merkatu Txikiak «erantzun bikaina jaso du». Antolatzaileek balorazio oso baikorra egin dute aurten ere.

Datuek adierazten duten bezala, aurtengo ekitaldiko parte-hartzea oso zabalda izan da, guztira 152 dendarik hartu dute parte; arduradun gisa, hamar egunetan zehar, 85 guraso, irakasle eta ikasle ohi aritu dira. Hauez gain, DBHko hirugarren eta laugarren mailako nahiz Batxilergoko 156 ikasle.

Helburu nagusia ekonomikoa ez bazen ere, honek ere oso erantzun ona izan du eta 17.500

euro baino gehiago lortu dute. Diru hau guztia eta saldu gabe gelditu zena Emaus Fundazioaren, Ibarratik misio taldea eta Tolosaldea Sahararekin taldeen esku geratu da, hauek baztertuakin orain arteko lana eginez jarrai dezaten.

Bertan salgai egon diren jantziak, jostailuak, tresnak eta abar ikastolako guraso, dendarri eta gainerako herritarren eskuzabaltasunari esker bildu dituzte. Izan ere, urtetik urtera ekimen honek jasotzen duen erantzuna azpimarragarria da, Laskoraineko enesentan. Hori dela eta, beraien esker ona adierazten dute ikastolakoek «modu batean zein bestean ekimen honetan parte hartu duten guztiei».

**Oraindik ere asko dago egiteko** Merkatu txikiarekin lotura zuzena dute Emaus Fundaziokoek, Ibarratik misio taldekoek eta Sahararen aldeko eskualdeko elkarrekin. Honenbestez, Laskoraineko entzatzat benetan pozgarria deritzote dela, Emaus Fundazioak, bazterketaren aurka burutzen duen proiektua, eta Tolosaldea Sahararekin eta Ibarratik misio taldeek dituzten asmoak ezagutzeko eta

zabaltzeko antolaturiko ekintzetan jaso duten «atxikimendua eta erantzun ona». Hori esker ehunka gaztek, gurasok, familiak eta herritarrek, azken urte hauetan, ezagutu ahal izan dute hainbat jendek bizi duen gizarte bazterketa, bai urrutian eta ez oso urrutian hemendik gertu baizik. Aldi berean, egoera horiek leuntzeko eskuera duten aukera eta herritarren artean zabaldu nahi duten konpromisoa ezagutzera eman dute. «Ekimen xume hauen bidez gizarte solidarioagoaren alde ari garela eta jarraipena izan dezan merezi duela» ziurtzat jotzen dute Laskorainekoek. Hori dela eta, argi dute Eguberrietako kanpaina amaitu bada ere, egitekoak egunerokotasunean hor dirauela.

Elkartasun ekimenekin jarraituz, hilaren 11tik 30era bitartean Saharara bidaltzeko elikagaiak bilduko dituzte ikastolan, *Ikasle bat, gutxienez kilo bat* lelopean (azu-krea, arrosa, dilistak, babarrunak, garbantzuak, hegaluzea, sardinak eta konpresak). Iazko xedekin jarraituz, aurten ere, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin, 10.000 kilo elikagai biltzeko asmoa dute.

**@ Eztabaida.** Urte askotako lan eta esfortzuen ostean, azaroaren 27an inauguratu zuten Topic, Tolosako Txotxongiloen Nazioarteko Zentroa. Hilabetetik gora igaro da, eta hainbat ekitaldi gauzatu dire bertan, azken asteetan. Izan al zara bertan? Zer iruditzen zaizu? Gustatzen al zaizu? Horrela bada, zergatik? Sartu *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza* egunkariaren webgunean eta eman zure iritzia. Esan zer pentsatzen duzun gai honen inguruan, eta azaldu zergaitiak.

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Helduentzako bost ikastaro hil honetan Ikastn-en eskutik

**Hezkuntza** » Sendabelar, emozio, informatika eta elikagaien manipulazioaren ingurukoak dira antolatutako saioak.

### ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntzako (BOZI) Bitartekotza Zerbitzua da Tolosaldean Ikastn. Ikuspegi berri baten alde egiten dute, non prestakuntza, lana eta aisialdia bizitzako etapa guztietan elkarrekin dauden. Orain, ikastaro berri batzuk antolatutuzte datorren hilabeteetarako.

Antolatutako kursoen artean, bost hil honetan hasiko dira. Sendabelarren ingurukoak jada hasi da, eta hurrengo Emozioen tailerra izango da. Honek 15 orduko iraupena du, eta asteazkenetan izango da 18:00etatik 21:00etara bitartean. Hilaren 18an beste hiru hasiko dira, Informatika hastapena eta internet izenekoa nahiz Word au-

rreratu eta elikagaien manipulazio txartela. Lehendabizikoak 30 orduko iraupena du eta astelehenean ostiralerara izango da, goizez. Bigarrenak berriz 20 ordukoak, eta astelehenean ostegunera izango da, arratsaldean. Azkena 6 ordukoak da eta astelehenean eta ostegunetan izango da 09:30etik 12:30era.

Interesatuak telefonoz edo internet bidez eman dezakete izena. Alde batetik, [info@ikastrn.com](mailto:info@ikastrn.com) helbidera mezu bat bidalita edo 943 651147 eta 615775678 zenbakietara deituta.

Hurrengo hilabetean, hau da, otsailean, beste bost ikastaro egingo dira: etxeko kudeaketa eta mantenua; sendabelarrak, aromaterapia eta elikagaien terapia; Excel aurreratua; Word hastapena eta joskintza tailerra.

Hezkuntzari eta prestakuntzari beste ikuspuntu bat eman nahi diote Ikastn-ekoek, pertsonaren garapenean aurrera egiteko. Hori dela eta, zerbitzu horrek bizitza osoan zeharreko ikaskuntzaren alde egiten du.

## Laburrak

### Karroza eta konpartsen inguruko bilera, asteartean

**AISIA** » Datorren asteartean, hilaren 12an, Inauteriko karroza eta konpartsen bilera izango da Kultur Etxeko areto nagusian. Bilkura 19:00etan hasiko da. Bestalde, astelehenaz geroztik zabalik dago Udalak antolatzen duen Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan izena emateko epea. Hau Kultur Etxean nahiz udalaren webgunean ([www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net)). Gai monografikoa duen bilera honetan lehiaketaren nondik norakoen berri emango da. Bertan, gaiarekin interesa duen edonork hartu dezake parte. Honez gain, hilaren 14an, 19:00etan, Jai Batzordearen bilera izango da Kultur Etxeko bigarren solairuko gelan. Inauterik izango dira hizpide.

### Harizpeko saskiaren irabazlea ezagutzeko dago

**AISIA** » Harizpe jubilatua eta pentiodunen elkarrekin jakitera eman duenez, oraindik ez da atera Gabonetako saskiaren irabazlea. Denera, bi saski zozketatu dira Eguberri hauetan, baina, elkarrekin oraindik ez dakite zein den bigarren saritua. Atzeratako zenbakia 003 da. Honenbestez, irabazleak hilaren 18a baino lehen jakinarazi beharko du berak duela txartel sariduna.

### Ukrainiako haurrak udan ekartzeko familien bila

**GIZARTEA** » Aurtengo udarako familiak lortzeko kanpaina amaitzen da eta izan duten arrakastaren ondorioz, 40 ume berri igaroko dute uda Euskal Autonomia Erkidegoan eta osasuna hobetzeko aukera izango dute. Hala ere, larritzat jotzen duten egoera bizi duten hobei ume oraindik ez dute hurrerari familiarik eta, beraz, ezohiko hirugarren bilera antolatzea erabaki dute Chernobil SOS elkarrekin, bertara harrerari buruzko dudak dituzten familiak gonbidatzeko. Haur hauen artean, hain gaztetxo ez diren bederatzi neska mutil daude. Interesatuak 670 419 078 telefono zenbakira deituta lortu dezakete informazio gehiago.

### 'Planet 51' eta 'Celda 211' ikusgai gaur, Leidorren

**AISIA** » Gaur Leidorren bi film ikusteko aukera izango da. Alde batetik, 17:00etan, haurrentzako saioan, *Planet 51* eskainiko dute, euskaraz. Hurrengo bi saioetan film bera proiektatuko dute, *Celda 211*, Daniel Monzonek zuzenduta. Espainia eta Frantziaren arteko ekoizpen horretan, Luis Tosar, Alberto Ammann, Antonio Resines, Carlos Bardem eta Marta Etura dira protagonistak.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Peio Olano lizartzarra atxilotu dute ETArekin lotura izatea leporatuta

**Atxiloketa** » Ostegun gauen eraman zuen Guardia Zibilak; AAMK jakitera eman duenez inkomunikatuta daukate.

## ERREDAKZIOA

Guardia Zibilak ostegun gauerdi Lizardzan, Peio Olano atxilotu zuen, ETArekin zerikusia delakoan. Erakunde armatuaren lehergaiak garraiatzea leporatzen diote. Iazko otsailean Salamancan (Espainia) ustez ETArena zen auto bat aurkitu zuen Poliziak lehergaiekin, eta Olano horrekin lotu dute.

Bestalde, Espainiako Barne Ministerioak komunikatu baten birtartez aditzera eman duenez, Peio Olano bitartekaritza lana egiten zuen Frantzia eta Espainia artean, materiala batetik bestera eramanez, ETako komandoentzat. Honenbestez, aipatutako iturrien arabera, Olanori aparatu logistikoko kolaboratzaile izatea leporatzen diote. Bestalde, Grande Marlaska epaileak abiarazitako operazio honetan, atxiloketa gehiago egiteko aukerak daudela jakinarazi dute. Dirudenez, azaroaren 24an atxilotutako Irati Mujika amezketa-rrari aurkitutako paper batzuetan du oinarria ikerketak.

Atxiloketa salatzeo elkarretaratzeko asmoa zuten atzo herritarrek, baina baimenik eskatu ez zutenaz, Ertzaintzatzarekin hitz egiten osten batzar informati-



Gaur 19:00etan manifestazioa egingo dute Lizardzan, 'Pello askatu, utzi pakean Lizartza!' lelopean. A. IMAZ

boa egin zuten. Bertan 200 lagun inguru elkartu ziren eta gaurko manifestazioa deitza adostu zuten. 19:00etan beraz, gaur, *Pello askatu, utzi pakean Lizartza!* lelopean manifestazioa egingo dute.

Regina Otaola (PP) Lizartzako alkateari heriotza mehatxua egin ziola egotzita, Olanok bi urteko espetxe zigorra du betetzeko -iaz jarri zion zigorra Espainiako Auzitegi Nazionalak, baita hamabi mila euroko kalte-ordaina ere; Gorenak gero kargu publikoak betetzeko zortzi urteko inhabilitazioa ere ezarri zion-. 2007ko irailaren 7an izan zen ustezko mehatxua, herriko festetan, Otaola udaletxean Es-

painiako bandera jartzen ari zela. Epailearen arabera, «hil egingo zara» oihu egin zion Olanok. 2007ko udal hauteskundeetan Espainiako Justiziak Lizartzako Ezker Abertzaleko hautagaizta baliogabe utzi zuen eta PPK horregatik lortu zuen alkatezta.

Polizia iturriek diote gaurko operazioak 2007ko gertaerengatik Olanok daukan zigorrarekin loturirik ez duela.

## LAB sindikatuaren adierazpena

Insaluz enpresan Olano LAB sindikatuaren delegatua. Hori dela eta, sindikatu abertzalekoek, lehe-

nik eta behin, beraien elkartasuna adierazi nahi izan diete «une gogor hauetan». Olanori, bere familiarekoei, lagunei, lankideei eta Lizartzako bizilagunei. Bestetik, azaldutakoaren arabera, «ez da lehen aldia gure kideek herenegun Lizartzan gertaturikoa bezalako jarduera errepresiboa jasaten dute. Gure herriak jasaten duen kriminalizazio estrategia ez da berria, baina azkenaldian suma ezin zitekeen mugetaraino areagotzen ari da». Gaineratzen dute, Euskal Herri osoari eragiten dien «jarduera errepresibo» hauek Lizartza dute la euren operazio zentroetako bat. «Bertan era guztiak urraketak

eman dira: alkatetzaren lapurreta, herriaren okupazio sistematikoak, espetxeratzeak (Kontsuelo), Peiok berak jasandako zigorrak bezalakoak etab.» diote. Azkenik, LAB sindikatuak langile klaseari dei egiten dio azken atxiloketa honen aurrean mobiliza dadin eta ka-lean «Euskal Herriak behar dituen aldaketa politikokoak» eska ditzan.

## «Torturatu izateko arriskua»

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «une hauetan Peio Olano bizi duen benetako tortura arriskuaz» ohartarazi du. Beraien hitzetan, «Espainian inkomunikazioaren erabilerak tortura arriskua badakar, arrisku hau biderkatu egiten da atxiloketa Marlaskaren aginduz eta Guardia Zibilak burutua baldin bada».

Aste gutxi igaro dira, epaile beraren aginduz, hainbat gazte atxilotuak izan zirenetik. Gainera, hauek torturatuak izan zirela salatu zuten. Amnistiaren Aldeko Mugimenduari ustetan, «torturaren erabilera da inkomunikazioa esplika dezakeen argudio bakarra». Honen aurrean, hemen, oraindik orain «realitate latz honen aurrean, erakunde nagusiak, klase politikoa eta komunikabide handiak itsu, mutu eta gor» daudela salatzen dute.

Peio Olano lizartzarra aske uzteko eskatzen dute Amnistiaren Aldeko Mugimendukoek. «Hemen Euskal Herriak kanpo behar ditugun bakarrak hona errepresioa eta tortura ekarri duten horiek dira» gaineratzen dute: «Guardia Zibilak, Espainiako Poliziak eta Frantziako Poliziak besteak beste». Atxiloketarekin lotuta, egunotan Lizartzan buruturiko diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen diete herritarrei.

# Lau ikastaro berrietan izena emateko aukera zabalik

**Alegia** » Pilates, sendabelarrei buruzko tailerra, aerodance eta eskulanak dira egin daitezkeen ikastaroak.

## IMANOL GARCIA

Urte berriarekin lau ikastaro berri egiteko aukera izango dute Alegian. Horiertako bi Udalak antolatutakoak dira: aerodance eta eskulanak. Beste biak Kutxaren bidez antolatu dira: pilates eta sendabelarrei buruzko tailerra.

Pilates kultur eta kirol etxean egingo dute, astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara. Otsailaren 2an hasiko da eta, udan atsendaldia egin ondoren, abenduaren 16an bukatuko da ikastaroa. Guztira 48 ordu izango dira. Ordaindu beharrekoa 130 euro da eta

izena [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) helbidean edo Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxean egin daiteke. Urtarrilaren 18a da horretarako azken eguna.

Sendabelarrei buruzko tailerra ostegunetan izango da, 18:30etik 20:30era, Intxurre elkartearen. Otsailaren 18an hasiko da eta maiatzaren 27an amaitu. Guztira 24 ordukoa izango da eta 80 euro ordaindu behar dira. Izena emateko [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) helbidean edo kultur eta kirol etxean, urtarrilaren 18ra arte.

Eskulanen ikastaroari dagokionez, datorren asteazkenean hastekoa da. Egun horretan izango dira saioak, 10:00etatik 12:00etara, kultur eta kirol etxean. Ekainaren 2ra arte iraungo du, guztira 40 ordu, eta ordaindu beharrekoa 90 euro da. Oraindik taldea osatzeko ez du nahiko jendea izena eman eta be-

raz, izena emateko aukera hildaren 12ra arte luzatu dute. Kultur eta kirol etxera joan behar da horretarako.

Azkenik aerodance ikastaroa egiteko aukera dago. Dagoeneko hasi dira saioekin, baina izena eman daiteke oraindik. Astelehen, astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 20:00etara dira saioak kultur eta kirol etxean. Nagore Muñoz irakasleak zuzendutako duenez, «aerobikaren antza du aerodance-ak, baina dantza gehiago egiten da. Aerobikarekin alderatuz, musika ezberdinak erabiltzen dira, salsa esaterako, koreografiak egiteko». Dantza koreografia horiek egiteaz gain, step, tonifikazioa, luzapenak... egingo dituzte saioetan.

Ikastaro horiez gain, udazkenean hasitako hirugarren adineko gimnastika ikastaroan ere izena eman daiteke.



Aerodance egiteko aukera izango dute Alegian. HITZA

## Iragarki laburrak

### SALGAI

■ **Su egurra.** Su egurra salgai. 20, 30 eta 40 zentimetrotar moztua. Etxera eramten dugu. Harremanetarako telefono zenbakia: 615 755 762.

### LANA

■ **Zaintzailea.** Bi haur txiki zaintzeko emakume euskaldun bat behar da. Harremanetarako deitu ondorengo telefono zenbakira: 652 747 423.

# Intxurreko Lurreldekakoa igoera fasea jokatzen hasiko da

**Alegia** » Martutenen du gaur lehenengo partida talde nagusiak; jubenil eta kadete mailako taldeek Kopa jokatuko dute.

IMANOL GARCIA

Intxurre Futbol Elkarteko talde ia guztiak amaitu dituzte Ligako partidak eta bertan lortutako sailkapenaren arabera igoera faseak edo Kopa jokatzen hasiko dira aurki. Talde nagusiak, Lurreldekako lehen mailan jokatzen duenak, sailkapenaren lehen postuan amaitu du eta orain igoera fasea jokatzen hasiko da.

Oso Liga ona jokatu du Santos Irazustabarrenak entrenatzen duen taldeak, bigarrenari zazpi puntuko alde atereaz. Igoera fasean hamar taldeko bi multzo daude eta multzo bakoitzetik zuzenean talde bakarra igotzen da mailaz. Gaur hasiko da fase hori Martutenen taldearen zelaian, 15:30ean. Amarotz taldeak ere parte hartzen du igoera fasean, baina beste multzo batean jokatuko dute. Mailaz igotzen badira Tolosa C.F.ko bigarren taldearekin batera egongo lirake.

Ligan maila ona erakutsi dute, baina ez dago jakiterik igoera fase honetan nola ariko diren. Izan ere, ezagutzen ez dituzten taldeen aurka jokatuko dute. Halere, poztekoa da Lurreldekakoa egiten ari den lana, futbolari aldetik kopuruz larri dabilela kontutan hartuta.

**Jubenilak eta kadeteak, Kopan** Bere aldetik, jubenilen eta kadeteen taldeak Ligan ez dira aurreneko postuetan gelditu eta, beraz, Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

Jubenilen taldea, Joxean Otañok eta Jon Altunak gidatuta, hilaren 17an hasiko da Kopa jokatzen. Kadeteen taldea, Eneko Garmendiak gidatuta, aste bete berandua go hasiko da, hilaren 24ean, lehenengo jardunaldian atsedendia dutelako.

**Infantilak, aurrean**

Oraindik Liga amaitu ez dutenak infantil mailako mutilak dira. Asteburu honetan du azken partida Imanol Jimenezek gidatzen duen taldeak eta, ziuurrenik bigarren postuan amaituko dute. Sailkapen

**Lurreldekakoak Liga ona egin du eta bigarren sailkatuari zazpi puntu atera dizkio**

horrek aukera emango dio Gipuzkoako Txapelketa jokatzeke. Datorren astelehenean egingo da Txapelketa horren zozketa.

Infantil mailako neskei dagokionez, oraindik partida gehiago falta zaizkie txapelketa bukatzeko. Aurreneko postuetan dago Aitor Encinasek eta Beñat Arandiak gidatzen duten taldea. Txapelketa polita egiten ari dira, zelai handian lehenengo aldiz jokatzen ari direla kontutan izanda, aurretik kirol aretoetan jokatzen baitzuten.



Goian Intxurreko Lurreldekako taldea eta beheko argazkian jubenil mailakoa. HITZA

## Lehen aldia eta finalean

ERREDAKZIOA

Alegiako San Juan eskolatik nesken talde batek parte hartu zuen alebin mailan, Intxurre izenarekin, Tolosako Shanti Torneoan. Lehenengo aldia zen parte hartzen zuena Alegiatik nesken talde batek txapelketa horretan eta txapelkunorde izatea lortu zuten. Finalean 3-2 galdu zuten Tolosako Laskorain ikastolako Denok Bat taldearen aurka.

Alebin mailan ere, mutilen bitartean aurkeztu ziren eta horietako bat finalerdietara iritsi zen, Ibarroko talde baten aurka galduz.



Azpitzapeldun gelditu zen alebin mailako nesken taldea. HITZA

## Laburrak

### Inauterietako entseguen hasiko da Atsedena taldea

**TOLOSA** » Atsedena taldeak Inauterietako entseguen hasiera emango die gaur 16:00etan Santa Maria plazan. Aisialdi taldeak azaldu dutenez, oraindik izena eman daiteke. Horretarako interesa duenak, gaur entseguera joan eta bertan eman dezake.

### 'Alvin y las ardillas 2' eta '500 días juntos' Gurean

**VILLABONA** » Gurea aretoa bi film izango dira asteburu honetan. *Alvin y las ardillas 2* gaur eta bihar 17:00etan emango dute. *500 días juntos* filma gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean emango dute.

## Batzar nagusia egingo dute Txintzarrikoek

ERREDAKZIOA

Alegiako Txintzarri Abesbatza Kultur Elkarteko urteko batzar nagusia egingo du hilaren 12an, astearte, 21:00etan kultur etxean. 2009. urtean elkarteak izan duen jardunaren balantzea egingo da. Hasteko, pasa den urtean egin diren ekitaldi eta kantu emanaldien berri emango da. Segidan, kultur elkarteak epe horretan izan dituen sarrera eta gastuei buruz hitz egingo da.

Aurten elkarteko batzordetik bi pertsona aterako dira, eta ondorioz, bertan bildutako bazkideek beste bi kide aukeratu beharko dituzte botoen bidez. Batzarrari

amaiera emateko, 2010. urteari begira Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzek dituen aurreikuspenen berri emango da. Aurten, koruaren 50. urteurrena izango da batzar nagusiaren ardatz nagusia.

Txintzarri Txiki eta Txintzarri abesbatzek urtean zehar egiten dituzten kantu emanaldi eta ekitaldi guztiak kudeatzen ditu kultur elkarteak. Elkarteko bazkide guztiak batzar horretara joateko dei egiten zaie. Bide batez, elkarteko bazkide egin nahi izanez gero, koruko kideren batekin harremanetan jarri edota kultur etxeko postontzian eskaera uztea besterik ez da zegin behar.



### Juan Martín Lanprentzat saria

**ALEGIA** » Jubilatuen tabernak Ignacio Garciaeren erakusketaren harira lehiaketa antolatu zuen. Koadroak nongoak ziren asmatu behar zen. 89 lagunek parte hartu zuten eta 30ek asmatu zituzten erantzun guztiak. Saria erakusketatik koadro bat aukeratzea zen. Azkenean Juan Martín Lanpre izan zen irabazlea. Argazkian, Mari Jose Leunda tabernako arduradunak Lanpreren alaba Leire eta Loreari saria ematen. HITZA

## Euskalduna jauregian ariko da Alurr, Ketan musika taldeari lagunduz

**Ibarra** » Hilaren 13an dantzatu du talde ibartarrak, 20:00etatik aurrera; sarrera doakoa izango da.

### ERREDAKZIOA

Urteko kultur agendari hasiera emango dio datorren astean Alurr dantzataleak, eszenatoki paregabea. Bilboko Euskalduna jauregian ariko da, hain zuzen, hilaren 13an, asteazkenean, Ketan musika taldearekin batera. Emanaldia 20:00etatik aurrera izango da eta sarrera doakoa da.

Emanaldi honetan Ketanek sei abesti aurkeztuko ditu eta Alurrek dantzarekin lagunduko du ikuski-zuna, Aiert Beobideren zuzendaritzapean.

### Ketan taldearen aurkezpena

Ketan taldea osatzen duten Leire Telletxea (Bera, 1986) eta Jagoba Astiazaran (Zestoa, 1986) musikagileek musika tradizionala berri-zkeko ahaleginean dihardute *Izanzaz garena* izeneko proiektuan. Lehenengoak akordeoia jotzen du eta bigarrenak txistua. Euskaldunako aurkezpen kontzertuan egungo eta betiko doinuak tartekatuko dituzte, Erkoreka, Zalba, Astiazaran, Gorosarri, Andoain eta Bastidaren lanaz uztartuz.

Egitaraua sei abestik osatuko dute: *Agurratz jolasean* (Jagoba Astiazaran), *Guggenheim* (Martin Zalba), *Haize-orratz* (Gabriel Erkoreka), *Izanzaz garena* (Jagoba Astiazaran), *Lamentos de mi acordeon* (Jose Saenz Garmendia), *Hiru ataleko alborada* (Eduardo Gorosarri) eta *Donostiako hiru damatxo* (M. Viconda, J.I. Ansorena, J. Astiazaran).

## Laburrak

### Urteko batzarra egingo du bihar Bizi Nahi elkarteak

**IBARRA** » Bizi Nahi jubilatue elkartearen urteko batzarra egingo dute bihar, igandea, 11:30etik aurrera. Elkartearen bertan izango da eta bertan ekonomia, urteko ekintzak eta zuzendaritza taldearen berri-zeia izango dituzte hizpide.

### Eguberrietako zozketa egin du Merkatari Elkarteak

**TOLOSA** » Alde Zaharra-Dendak elkarteak kideek Eguberrietako zozketa egin zuten atzokoan. Juani Hosteins Carrion tolosarrak irabazi zituen 6.000 euroak. Bere txartela berriz, Arozena Harategian bete omen zuen saridunak.

Azaroan jakinarazi zioten Berastegiko Udalarri udaletxeko eraikina ondare kulturala izendatu zutela, monumentu kategorian, Euskal Ondare Kulturalaren Inbentario Nagusian.

## Udaletxe bat baino gehiago

### ERREDAKZIOA

**B**erastegiko plazan duela bi hilabetetik hona monumentu bat aurkituko du bisitariak. Baina ez da berria, hiru mende pasatxo ditu. Izan ere, duela bi hilabete jakinarazi zioten Udalarri udaletxeko eraikina ondare kulturala izendatu zutela, monumentu mailan, Euskal Ondare Kulturalaren Inbentario Nagusian. Udalak berak eskatu zuen izendapena; esan beharrik ez dago, hortaz, «oso pozik» hartu zutela albiste udal arduradunek.

Eskaera horren arrazoia argi azaltzen du Aitor Lizartzak alkateak: «Eraikina berri beharra dago, zonalde batzuk oso hondaturik daude eta Udalak ezin zuen gisa honetako obra bat bere gain hartu, kostua altuegia izango litzateke». Eta hemen gakoak. Izendapenari esker, berritze lanetarako dirua lortzea errazagoa izango dela aitortu du Lizartzak. Hala ere, oraindik ez dira horretan jarri. «Orain atekak jo behar ditugu, baina izendapenak lagunduko du, sentsibilizazioa handiagoa izango delako».

### Diru kontuak

Datuei erreparatuz, 3 milioi euro inguru beharko ditu Udalak udal-tertxea berritzeko. 800.000 euroko diru laguntza jaso dute dagoeneko. Diru kopuru hau Etorlurrek kudeatuko du lanen lehen fasea osatzeko. Hala ere, lehen faserako beste milioi bat euro beharko ditu Udalak. «Diru kopuru hau lortzeko hainbat aukera aztertu ondoren maila gutxi bat eskatzea erabaki du

Udalak eta horretan ari gara», azaldu du alkateak. «Lehen fasean obraren zatirik garrantzitsuena egin nahi dugu». Hala, etxearen egitura konponduko dute. «Urte hauetan erabilera desberdinak izan ditu eraikinak eta paretak eta bota eta mugitu dira; ondorioz etxearen egitura bera ere mugitu da».

Berritze lanak uzadun aldera hasiko direla aurrekusi dute Udaletik, lehen faserako beharrezko dirua lortuta. Hala ere, luzerako joko du obrak. «Hiru edo lau urte beharko direla uste dugu; gainontzeko dirua, Gipuzkoako Foru Aldunditik, Eusko Jaurlaritzatik edo Espainiako gobernutik lortzea espero dugu, izendapenak ere lagunduko du», argitu du Lizartzak.

### Zertan geratuko da udaletxea?

Guztia epe barruan eta ezustekorik gabe garatuz gero, beraz, hiru edo lau urte barru Berastegiko biztanleek zerbitzu anitzez hornituriko udaletxea izango dute. Une hauetan, udaletxeak hiru solairu dituen arren, eraikinaren laurdena baino ez dute erabiltzen.

Behin lanak amaituta, berriz, udaletxeko bulego ez gain, Udal Liburategia, medikuaren gela, KZ-guneko lokala eta balio anitzeko gelak izango ditu eraikinak. Azken hauetan bilera, tailerrak, hitzal-diak, ikastaroak eta bestelako kultur jarduerak egitea aurrekusten dute. Honekin egun herriak dituen zerbitzuak gune bakarrean barneratu nahi dituzte. «Onura ikaragarria izango da herriaren



Puntu erdiko lau arku ditu eraikinak, 1930eko armaria eta 1745eko erlojua. A.I.

tzat», dio Lizartzak. Turismoari begira ere ahalegina egin nahi dute: «Kartzela dagoen lekua bisitariarentzat atondu nahi dugu, bertan herriaren inguruko informazioa eta bertako produktuak aukeratu jarri; leku oso berezia da eta amua izan daiteke».

Hori bai, herri txiki batentzat «sekulako esfortzua» suposatuko du obra honek. Alkateak berak zehazten duenez, urte hauetan antolamendu plan orokorrean aterako onura gehienak horretara bideratu beharko dituzte.

### Udaletxeko eraikinaren ezaugarriak

Aranzadi zientzia elkarteak eraikinari buruzko azterketa burutu zuen izendapena eskatu aurretik. Hiru ezaugarri egiten dute berezi Berastegiko udaletxea, batik batik, batetik, euskal udaletxearen berezko arkitektura, armaria beste-tik eta kartzela azkenik.

1699 eta 1734 urteen artean eraiki zuten etxea, Martin de Zabaleta eta Martin de Etxeberria diseinatzaileen eskutik.

Eraikinaren kanpoaldea harlan-

duz dago egina eta arkupean pilotaleku txiki moduko bat du. Bertan, makina bat partida jokatu zituzten berastegitarrek, bigarren solairuan zegoen elizara edo eskolara joan aurretik. Frontoi itxurako atepere honek, gainera, puntu erdi-

### Herriak dituen zerbitzu guztiak eraikin bakarrean barneratu nahi dituzte behin lanak amaituta

ko lau arku ditu. Aurrealde honetan ikus daitekeen armaria 1730. urtekoa da eta Iruñeko Domingo de la Sotarenarena da. Erlojua ere badu, 1745ean Pablo Etxeberriak egina.

Bigarren solairuan, garai batean kartzela zegoen. Eraikinaren ipar-ekialdean kokaturik dago eta karratua da formaz. Gainontzeko egituratik kanpo geratzen da gela hau, hormek banatzen baitute. Kartzelara sartzeko atea bikoitza da eta egun ez du erabilpenik.

Esan bezala, euskal udaletxearen berezko arkitektura du Berastegikoak eta estilo barrokoak da.



## Ama guztientzat larroska opari

**BERASTEGI** » Errege Egurenaren bezpera berezia izan ohi da etxeko txiki-entzatzat, baina Berastegin etxeko amak ere gogoan izan zituzten aurtengoan eta eurentzat ere sariak banatu zituzten. Errege Magoei laguntzen Olentzero aritu zen eta azken honek herriko amatxo guztientzat sorpresa ekarri zuen. Ez nolana hiko, gainera. Zuzenean Forondako aireportutik dozenaka lore sorta banatu zituen, azken egunotan lore horiek izan duten arrakasta zela eta Udalak bereziki hala eskatuta. HITZA





Kadeteen mailan, Tolosa- Olano bikotea, Nazabal eta Artolaren aurka arituko dira eta jubenetan, Bereziartua eta Urretabizkaia, Zinkunegi eta Loidiren aurka. HITZA

# I. Antton Pebet Memorialeko finalak gaur Bear-Zana pilotalekuan

**Villabona »** Kadete, jubencil eta nagusien mailako partidak jokatuko dira 18:00etatik aurrera. Afari eder batekin emango diote amaiera txapelketari.

## ENERITZ MAIZ

Villabonako Behar Zana Kirol Elkartek I. Antton Pebet Memorialeari hasiera emateko eguna abenduaren 18an jarri zuen. Guztia prest zeukaten, baina elurrak lehen kanporaketak egun batzuk atzeratzea behartu zituen. Hala ere, elurrak ez zuen lortu txapelketa zapuztea eta Eskuz Binakako Eliteko Txapelketak maila txukuna erakutsi du etorkizuneko pilotariek.

Sei kanporaketen ostean, gaur arratsaldean, Bear-Zana pilotalekuan 18:00etan hasiko dira txapelketako azken partidak. Kanporaketa guztietan bezala, kadete, jubencil eta nagusien mailako partidak jokatuko dira.

Kadeteen mailan, eskualdeko bi bikote iritsi dira finalera, alde batek, Olano aresoarra eta Tolosa anoetarra eta bestetik, Artola eta Nazabal alegiarrak. Kadeteen mailan beraz, txapeldun eta txapeldun ordeak eskualdean geratuko dira. Olano, Leitzako Aurrera pilota eskolako da eta bere bikote

anoetarra, Andoaingo Gaztelekuko. Alegiako pilotariak berriz Intxurre pilota eskolakoak dira.

Jubenetan ere finalera iritsi den eskualdekorik bada. Alde batek, Urretabizkaia ikaztegiarra eta Bereziartu lazkaotarrak osatutako bikotea sailkatu da, eta hauek, nor baino nor, Astigarragako Loidi eta Zinkunegi donostiarraren aurka lehiatuko dira. Zinkunegi donostiarraren arren, Bidaniako Aurrera-Saiaz pilota eskolako pilotaria da.

Azken partidatan, nagusien mailan ere eskualdean pilotari onak ditugun seinale, Albizturko Telletxea sailkatu da. Antzuolako Mendizabal eta Mallabiako Aldapek osatzen duten bikotearen aurka jokatuko du partida, Goizuetako pilotaria den Narbarterekin batek. Nabarte-Telletxeak osatutako bikotea, Aurrera Saiazko pilotariak osatua da. Txapelketa honek argi geratu da Leitzaldean eta Tolosaldean pilota bizirik dagoela eta etorkizuna ziurtatua duela kirol horrek.



Nagusien mailan, Aldape eta Mendizabal bikoteak Telletxea eta Nabarteren aurka jokatuko du. HITZA

## 24 bikote lehiatzen

Txapelketa honetan, Euskal Herriko pilotariak lehiatu dira. Gehiengo gipuzkoarrak izan dira ere, Lapurdi, Araba, Bizkaia eta Nafarroako pilotaririk ez da falta izan. Finalean, Goizuetak eta Areso nafarrak, Anoeta, Alegia, Ikaztegieta, Lazkao, Albiztur, Do-

nostia, Astigarraga eta Antzuolako gipuzkoarrak eta Mallabiako bizkaitarrak izango dira.

Iñaki Lizaso Behar Zana pilota eskolako irakaslearen hitzetan «jokatu diren ia partidak guztietan oso maila ona erakutsi dute pilotariak. Lehia parekatua eta emozioa izan dute norgehiagokel» adierazi

digu. Partidak ikustera joan diren pilotazaleak ere asko izan direla kontatu digu. «Pilotalekura jende asko gerturatu da eta beteta egon dira. Gainera, kanporaketa bakoi-tzean, harategi ezberdinek eskainitako saskiak zozketatu dira eta horrekin ikusleen artean giro polita sortu da».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

### Barriola, Bengoetxea, Zubieta, eta Olazabal sariak banatzen

I. Antton Pebet Memorialak, lutzuko pilotariak izango ditu sariak banatzeko. Memorial honetan parte hartu duten pilotari gazteen eredu izango diren Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea leitzarra, Mikel Olazabal aresoarra eta Aitor Zubieta etxarriarra izango dira. Antolatzaileek, «bihotzez eskertu nahi diete lau pilotariei, beraien agenda estuetan, gaur Villabonako Bear-Zana pilotalekura gerturatu eta sari banaketan parte hartzeko egingo duten ahalegina».

### Kanporaketetan jokaturako partiduetan izan den mailarekin oso gustura daude

### Behar Zanak «eskerrak» eman nahi dizkie txapelketa antolatzen lagundu duten guztiei

### Olano, Tolosa, Artola, Nazabal, Urretabizkaia eta Telletxea eskualdeko pilotariak finalean dira.

Finalen aurkezle lanetan, Igotz Alkorta Euskadi Irratiko esataria ariko da eta garaikurrak banatu ostean, jardunaldiko mementorik hunkigarriena iritsiko da. Antton Pebeten gurasoei oroigarria emanaz omenaldi txiki bat egingo diote antolatzaileek. Pilotari guztiek izango dute sari ekonomikoa, garaikurra eta baita beste sari sorpresaren bat ere. Hala ere, partidak bukatu eta sari banaketa egin aurretik, Amaia Agirre bertsolariak idatzitakoak diren eta hileta egunean ere abestu ziren bi bertso entzungo dira pilotalekuan «Gogoratu zaitugu gure tanto guztietan, guretzat izar bat zara eta izar horren bueltan, segiko dugu lanean oskarbi den egunetan, beti egongo

baitzara gu guztion bihotzetan» entzungo den bertsoetako zati bat dugu.

Behin guztia bukatuta, Memorial honi amaiera bikaina emateko, txapelketako finalera iritsi diren pilotari guztiek eta antolatzaile eta laguntzen aritu direnek, Behar Zana Elkartearen afaria egingo dute.

Bestetik, ez dituzte ahaztu nahi izan I. Antton Pebet Memoriala babestu duten eragile guztiak. Antolatzaileek «esker ona» adierazi nahi die «Villabonako eta Zizurkilgo Udalei, denda, enpresa, taberna...», hau da, laguntza eskaini duten guztiei. Beraien laguntzarik gabe ez baitzen lehen edizio hau posible izango».

Behar Zana Kirol Elkartetik, pilotazale guztiei dei egiten diete, gaur 18:00etan Villabonako pilotalekura gerturatuzko eta jokaturako diren partida bikainez gozatzeko. Gaur txapelketako finalak izanda «frontoia pilotazaleez betetzea» espero dute. Gainera, pilotalekura hurbiltzen diren ikusle guztien artean, Gopar enpresak eskainitako saski eder bat zozketatuko dela jakinarazi dute antolatzaileek.

### Errepikatzeko moduan

Finalaren aurretik, orain artean jokatu diren kanporaketen balorazioa egin dute Behar Zanakoeke ta «baikortzat jo dute» bai partidak eta baita jendearen parte hartzeagatik ere. «Merezi izan du antolatzaileak», diote. I. Antton Pebet Memoriala antolatuta ostean eta bigarrenik izango ote den galdetzean, «zailena lehenengoa egitea dela esaten dute eta hori egin dugu» erantzun zuen Iñaki Lizasok. «Bigarren ere izango da eta pazientziarekin hartuko dugu eta ahal bada lehenengo hau baino hobea antolatzen saiatuko gara».

Memorialetik adin ezberdinetako 24 bikote eta 48 pilotari pasa dira. Honelako txapelketek etorkizuneko pilotariak eskarmentua hartu eta garatzeko balio dute.

## Antton Pebeten gurasoak ere bertan

**Omenaldia** » Abuztuan hil zen pilotariaren familiak oroigarria eta omenaldi xume bat jasoko ditu Villabonako pilotalekuan.

### E. MAIZ

Villabonako Behar-Zana Kirol Elkarteak, Antton Pebet angeluarren omenaz antolatu du lehen memorial hau. Bere izena eman duen Eskuz Binakako Elite Txapelketa honen amaieran, ez da faltako Antton Pebet eta bere gurasoei egin beharreko omenaldia.

Duela hilabete gutxi, 2009ko abuztuaren 6an, lo zegoela izan zuen isuri baten ondorioz hil zen Pebet. 22 urte besterik ez zituen pi-

lotari gazteak Villabonako Iñaki Lizasorekin osatzen zuen pilotako bikotea.

Billabonarrekin ez dute ahaztu nahi izan Lapurdiko pilotaria, zeren lapurtarra izanagatik, Behar-Zana Kirol Elkarteak kide baitzen bera. Bere pilota bikoteak «sasi artean aurkitutako lorea» bezala gogoratzen du.

Horregatik, ilusio eta gogo guztiz prestatu duten Memorial honen bukaeran, Antton Pebeten gurasoei oroigarria eta lore sorta bat eskainiko diete omenaldi txiki bat egingez. Jarraian, Oinkari Dantza Taldekoek agurra dantzatzeko die eta Landa anaiek jota bat eskainiko dute. I. Antton Pebeten Memorialak, datozen urteetan ziur jarraipena izango duela.



Auzotarren esku dago Amarotzen etorkizuna, horretarako jardunaldiak eta Herri Kontsulta antolatu dituzte. HITZA

## Amarotzen etorkizuna auzotarrek erabakiko dute panel desberdinen bidez

**Tolosa** » Herri Kontsulta urtarrilaren 23an eta 24ean egingo dute Amarotzen. Ondoren ondorioak aurkeztuko dira.



Paper fabrikaren lekuan etxebizitzak egiteko asmoa dago. IMANOL GARZIA

### ERREDAKZIOA

Amarozko Auzo Elkarteak antolatu duen Herri Kontsulta urtarrilaren 23an eta 24ean egingo da. Elkarrearen esanetan, helburua ondorengoa jakitea litzateke: «Amarotzek zer nolako ekipamendu komunitarioak edukitu beharko litzuzkeen, hau da, gai horren inguruan amaroztarrek duten iritzia zein den eta zer nolako herria, zer nolako Tolosa nahi dugun etorkizunean».

### Tolosa 2015 proiektua

Kontsulta Udalaren babesarekin burutuko dute. Amarotzen egingo diren aldaketa handiek, hau da, paper fabrikaren inguruko 300 etxebizitzak, ekipamenduen arloan planteamendu berri bat ekarriko dute auzora. Arrazoi horregatik erabaki zuten kontsulta egitea. Amarotz Auzo Elkartearen esanetan, «ekimenaren helburu nagusia hori da. Hala ere, Udalak planteatutako Tolosa-2015 proiektua martxan dagoenez, interesgarria iruditu zaigu aukera hau aprobeztatzea, etorkizuneko gure herria zer nolako izatea nahi dugun jakiteko».

### Parte hartzeko aukerak

Urtarrilaren 23an eta 24ean parte hartze panelak kalean jarriko dituzte, eguraldi txarra eginen badu Auzo Elkartearen egoitzan jarriko dira. Nahi duenak bere ideiak, proposamenak eta hausnarketak jarriko ditu bertan. Baina nola? «Dinamika honetarako, partaide babilizak, maparen gainean pegatina bat jarriko du, pegatina bakoitzak zenbaki bat izango du, eta gero, aldameneko panel batean, post-it batean idatziz jar dezake bere ekarpena, post-it horrek, pegatinaren zenbaki bera izan beharko du».

Panel hauek galdera batekin itxiko dira: «Herri guztian garrantzia duten proiektuak, partaidetza prozesu baten laguntzarekin egin beharko al ziren?».

Bildutako informazio guztia urtarrilaren amaieran eta otsailaren hasieran aztertuko eta eztabaidatuko dute, informazio jardunaldietan. Lehen egunean «partaidetza esparruen ondorioak aurkeztuko ditugu Auzo Elkarteak kideok» eta bigarren egunean, «mapen inguruko informazioarekin, Udala eta auzo ordezkariok gai honen inguruan eztabaida bat egingo dugu. Eztabaida irekia izango da, eta dinamizatzaileen laguntzarekin, bertaratuak guztiak iritziak eta ekarpenak eman ahal izango dituzte».

Behin jardunaldi hauek amaituta, Azken Txostena argitaratuko dute, prozesu osoaren ondorioekin. Publikoki berriz, Auzoetxan aurkeztuko asmoa dutela jakinarazi dute Auzo Elkarteak kideek.



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Leitza:** 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Anoeta.** Dantza-soka otsailaren 6an izango da aurtengoan eta da-goeneko parte hartzeko izena eman daiteke Itzuli Tabernan. Hilaren 15ean, 22an eta 29an axeridantza erakutsiko diete gerturazten direnei. Astelehenetan (hilak 11, 18 eta 25) fandangoa eta arinarina erakutsiko dute. Lehen enseguru orokorra aldiz, otsailaren 1ean izango da, 19:30ean. Aurtengoan lehen aldiz entseguak Kiroldegian izango dira.

■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkarteen urteko asanblada egingo dute bihar, hilak 10, 11:30ean. Bertan ekonomiaz, urteko ekintzez eta zuzendaritza taldea berriaz jar-dungo dute.

■ **Leitza.** Inauterietako Atsauren kalejira antolatzeko asmoz bi deialdi egin ditu Leitzaoko Inauterizale Taldeak gaurko, hilak 9rako. 16:00etan Atsauren zapelak eta jantziak egiteko tailerra antolatuko dute Aurrera elkarteak. Materiala norberak eraman beharko du. Taldeko kideek aholkuak eta laguntza eskainiko dute. Ondoren, 20:00etan, bilera egingo dute Aurrera elkarteak Inauteri Taldekoek. Herriarrak bertara gonbidatu dituzte.

■ **Tolosa.** 2010eko mendi federatu txartela egin daiteke Alpino Uzturre elkarteak, Gudari 5 helbidean, astelehen eta asteazkenetan, 19:30etik 20:30era edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbide elektronikoan.

■ **Tolosa.** Euskal Herria plaza berreskuratuko eta oinezkoentzat jartzeko prozesuarekin jarraituz, honakoa jakinarazi du Tolosako Udala: hilaren 11n, astelehenean, hasiko dira plazako zoladura birgaitzeko lanak. Hori dela eta, debekatuta egongo da bertan apar-katzea. Plaza berreskuratzeako ondorengo lanak egingo dira:

zolakura konpondu eta hiri altzari berriak jarri. Jarduera honen helburu nagusia Tolosako Hirigune Historikoko espazio hau oinezkoentzat berreskuratzea da.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Aranburu Jauregian Nartura 2000 erakusketa ibiltaria ikusteko aukera dago.

■ **Tolosa.** Mikel Azpillaga margolari donostiarraren 200-08 eta *Atzerako begirada* erakusketa Aranburu Jauregian hilaren 16ra bitarte, 17:30etik 20:30era, jaieguruetan eta astelehenetan izan ezik.

■ **Tolosa.** Igor Obesoren beira lanen bilduma, *Aquatica*, Tolosako GKO arte galerian ikusgai egongo da hilaren 30a bitarte.

### Kontzertuak

■ **Tolosa.** Irrati maratonia gaur, hilak 9, 11:00etatik aurrera Bonberean eta Biok taldearen kontzertua 22:30ean.

■ **Tolosa.** Juan Mari Beltranen *Ttakkun ttan ttakun* CDaren aurkezpen kontzertua Leidor aretoan gaur, hilak 9, 20:30ean. Kukai Dantza Taldeko Jon Maya eta Vanesa Castañok eta Hermaniko musika eskolako ikasle txalapartariak ere parte hartuko dute.

### Txotxongiloak

■ **Tolosa.** Los Duendes txotxongilo taldearen *La Capercucita no, gracias* lana gaur, hilak 9, Topic-en 17:00etan eta bihar, hilak 10, 12:30ean.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga M. Martin, Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

Elurrak ez zituen bazterrak erabat zuritu atzokoan, ez behintzat Berastegitik behera. Arriskuak gaur jarraituko du eta bihar, berriz, izotza omen dator.

# Elurrak ez du dena estali



Berastegin zuriak eta berdeak borroka gogorra eduki zuten atzokoan. Gaur, bigarren borroka eguna izango dute. A. IMAZ

### ASIER IMAZ

**B**igarren denboralea gainean dugun honetan, gaurkoa izango omen da egunik gogorrena, hori diote behintzat iragarpenek: «non nahi eta noiz nahi elurra». Bihar berriz izotza.

Ibarratik Berastegira doan errepidea kamioientzat itxita zegoen atzo goizean. Eguerdian, debekua berri ematen zuen panela bigeari bizkara emanaz aurkitzen zen, baztertuta, baina bada ezpada ere ez oso urrutia. Leitza eta Areso zeharkatzen dituen A-15 autobidean ere arazoak egon ziren elurra ari zuelako. Hori bai, Berastegiri postal itxura eman zion.

Lizartzan, Otsabioren goiko alde zauriturik esnatu zen atzo. Gauean dirudieneko elurra egin zuen baina ez nahikoa, oraindik behealdean berdeguneak gehiegi nabarmentzen baitziren.



Ibarratik Berastegira doan errepidea, goizean itxita egon zen kamioientzat. A.I.

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behean • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31860 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ • N A : \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_ • Jaioteguna: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_ • Herria: \_\_\_\_\_

• P,K: \_\_\_\_\_ • Tel.: \_\_\_\_\_

• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

• Kontu zenbakia: